




LIBURUA

Ameriketara joan nintzen



EREIN

ETXETIK AMERIKETARA ENARA GARMENDIA

EREIN, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Oker ez banago aurten atera dituen bi liburuak dira Enara Garmendia-ren lehen lanak euskal letretan. Bi obra plazaratu ditu olaberriatarrak: *Etxetik Ameriketara* eta *Hiru gara, baina niri bost!* Biak Erein etxearen bidez plazaratuak eta biak familia bereko protagonistekin. Hori bai, lehena gazteentzat da eta bigarrena haurrei zuzenduta dago.

Etxetik Ameriketara izenburuak adierazten duen bezala, Amerikako Estatu Batuetara urtebete igarotzera doan familia baten istorioa dugu, zehazkiago esanda familia horretako alaba nagusiarena, Maia. Irakurleak bidaiaren gorabeherak jakin ondoren Maiaren "hango" bizitzaren berri ezagutuko du, ikasketak, eskolarako bidaia autobusean, nola hartzen duten han... eta baita ere nola jasan behar duen bullyinga bertako ikasle batzuegandik.

Garmendiak istorioa hainbat ikuspuntutatik kontaktzen digu; zenbait narratzaile daude eta gertakariak bakoitzaren ikusmoldeetik azalduko zaizkio irakurleari. Maia eta Ayla bere laguna dira narratzaile nagusiak. Bi neska horiek ditugu narratzaile garrantzitsuenak, baina badira zeharka, noizbehinka, agertzen diren beste ahots batzuk: Gorka anaiarena, Ms. Rose irakaslearena, Nathan mutilarena eta Hannah klaseko neskarena. Istorioaren argumentua guztion artean joango dira eraikitzen. Sare hori, batez ere Maiaren eta Aylaren kontakizunari esker ezagutuko dugu, baina gainerakoek ekarpenak ere aberasgarriak dira istorioa osorik eta ikuspegi ezberdinetatik ezagutzeko.

Irakurlea harrapatuta sentituko da Maiari gertatzen zaizkionekin; berehala

ikusiko du nola baztertzen duten berak inolako errurik izan gabe eta nola inguruko lagun guztiek bakartzen duten. Baina horrekin batera Aylaren baitan dagoen eztabaidaren lekuko izango gara; zergatik defendatu kurtso amaieran joango den pertsona hori, horrek bera bakarrik geratzea ekar badezake? Zergatik egin aurre "lagunei", kua-drillari, eta kanpoko neska baten alde agertu?

Liburua, kapitulu laburretan, eta narratzaile batetik bestera jauziak emanez, azkar irakurtzen da eta oso aproposa izan daiteke mundu globalizatu honetan hainbat eta hainbat konturi buruz hitz egiteko: hezkuntzaz, adiskidetasunaz, bullyingaz, amodioaz... Baina, batez ere, une atsegina igarotzeko liburua da Enara Garmendiaren lehen nobela hau. ●